

# itsasondo2.0

herriko aldizkaria 54. zk (uztaila 2023)



## Udal talde berria dugu!

▼ **Hitzar,  
bide berria bilan**

▼ **Eskola Kirola  
martxan!**

▼ **Elkarrizketa:  
Iñaki eta Gorka Telleria**



**Herri-izarrak  
ez dira itzaltzen**

# aurkibidea

agurra



- 03 Udaleko berriak
- 04-05 Haurreskola
- 06 Eskola
- 06-07 Guraso Elkarteak
- 08-10 Gazteria
- 11 Motzean
- 12-13 Hitzar, bide berrien bila
- 14 "Txikia"
- 15 Natura
- 16-20 Elkarrizketa: Iñaki eta Gorka Telleria
- 21-22 Literatura tailerra
- 23 Txatxoziklo
- 24-25 Hauteskundearen balorazioa
- 26 Harrera eguna
- 27-30 Hemeroteka
- 31 Liburutegia / Errezeta
- 32 Agenda

**G**aurkoan Itsasondo 2.0 aldizkariaren 54. alea dugu esku artean. Konturatzeko iritsi dira ikasturte amaiera, egun luzeak eta uda giroa, beraz, ken itzazue eguzkitako betaurrekoak eta ekin herrian pasa direnak irakurtzeari.

2023 urteari hasiera eman genionetik hainbat ekintza eta festa izan dugu herrian, eta hauen erreposoa egiteaz gain, hurrengo hilabeteetan datozen berri ere izango dugu. Hauteskundeak izan ziren, eta hurrengo agintaldian udal-talde berria zein izango den jakin genuen, Txa Txo ziklo asteburua egin zen, literatura tailerra, eta hezitzaile berriak jarri dira martxan herriko haurrekin ekintzak burutzeko. Ez ahaztu eskola kirola eta laster datozen udalekuak ere!

Hau gutxi balitz, haur-eskolakoen eta eskolakoen berri izango dugu. Arbelaitz eta jubilatuek ere herrian gertatutakoak kontutuko dizkigute, eta Hitzar Komunitatearen nondik norakoak ere irakurtzeko aukera izango dugu.

Ah, eta ahaztu aurretik, ba al duzue elkarrizketa luzea nori egin diogun jakiteko jakin-minik? Ez gaitezen gehiago luzatu eta goazen, bada, hurrengo orrietan idatzitakoak irakurtzera. Gozatu aldizkariaren irakurketa eta gozatu udara, Itsasondo!

## Sarrerako bertsoak

Gaia:  
*Irteera Saturraranera  
Urkiye eskolako 3.zikloko  
ikasleak*

Azken hilabeteak historia lantzen gerra zibilak hainbat ondorio sortzen emakumen kartzela zan Saturraranen hantxe gu izan ginan hura ezagutzen.

# Udaleko berriak

.....  
 Itsasondo 2.0. aldizkariaren azken alea argitaratu zenetik 4 udalbatza burutu dira, martxoaren 27 eta maiatzaren 2an ohikoak.  
 .....

**E**kainaren 14ean, aldiz, 2019-2023 legealdia-ri amaiera ematen dion ez-ohiko udalbatza burutu zen, legeak ezartzen duen betebeharrak betez, legealdiko azken udalbatza onartzea beste zereginik ez duena. 2023 ekainaren 17an, aldiz, 2023-2027 legealdia osatuko duen Udalbatza eratzeko saioa burutu zen. Bertan EH Bilduko 6 aldeko botoekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin, Iñaki Aizpuru Oiarbide Alkate izendatua izan zen hurrengo 4 urteetarako.

Hauek dira azken udalbatzetan aztertu diren gaiak besteak beste:

- Udalak dituen lokalen kontratuak urtebetez luzatu dira, denda eta mediku-etxeke pisua.
- Oinherri herri hezitzaileen sareko bazkide egin da Itsasondoko Udala.
- Berdinbidean proiektura atsekitu da Itsasondoko Udala, berdintasuna bultzatzeko hainbat ekimen aurrera eramatea dakarkilarik.
- Herriko talde eta eragile ezberdinei eman beharreko diru-laguntza eta betebeharrak zehazten dituen 2023-2025 diru laguntzen plan estrategikoa onartu da.
- Herriko haur eta gazteei zerbitzua eskaintzen dien PSZ zerbitzua kontratatzailearen profileko kontratu txiki modalitate bidez Kili-kolo enpresari esleitu zaio eskaintza hobereana aurkeztu duelako.
- 2023ko aurrekontuaren 1. Kreditu aldaketa onartu da.
- 2022. urteko aurrekontu likidazioa onartu da.



## ITSASONDOKO UDALAK EGIN DITUEN DIRULAGUNTZA ESKAERAK

- Euskeraren erabilera soziala normalizatzeko planak burutzeko diru laguntzak.
- Udalek haur, nerabe eta gazteentzako planak eta proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak.
- Herritarren partaidetza sustatzeko dirulaguntzak.
- Gipuzkoako landa garapenerako proiektuak laguntzak. Udal brigadarentzako makinak eskatu dira.
- Next Generation laguntzen barne, Itsasondoko denda berria hornitzeko proiektua.

## ONDORENGO DIRU LAGUNTZAK ONARTU ZAIZKIO ITSASONDOKO UDALARI

- Gipuzkoako Foru Aldundia, garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko laguntzak. Murumendiko korredorean lursailak erosteko. 32.240,65€
- Gipuzkoa Foru Aldundia, Udalerrian energia kontrolerako sistema baten ezarpena. 5.700€
- Gipuzkoako Lurralde historikoko landa bideetako diru laguntzak.
  - Urkiko bidea. 18.989,84€
  - Iraolako bidea. 8.548,65€
  - Saroko bidea. 3.676,54€

# Haurreskola doakoa



.....  
2023-24 ikasturtetik aurrera aldaketak izango dira Haurreskolak Partzuergoko zerbitzuan, doan izango da eta honekin batera araudi berriak ezarri dituzte hainbat alderditan.  
.....

**E**saterako, Haurreskolan izena eman duten haurrei gutxienez hilean %80ko asistentzia eskatuko zaie. Haurren asistentziaren hilez hileko jarraipena egingo da, besteak beste, berriazko aplikazio informatiko bidez, eta Hezkuntza Sailaren Ikuskaritza Zerbitzua- ren laguntzarekin.

Ordugegietan ere aldaketak ezarri dituzte, talde bakoitzaren funtzionamendu egonkorra ahalbidetzeko. Bi ordugegi izango dituzte familiek aukeratu, eta lehen sarrera-irteerako ordugegi malgutasuna bazuten ere, orain, ordugegi mugatu batzuen barruan sartu eta atera ahalko dute haurra Haurreskolatik.

Goizeko ordugegia: 08:00etatik 14:00ak arte.

Haurraren sarrera-irteerak: 08:00-09:30 eta 12:30-14:00.

Egun osoko ordugegia: 08:00etatik 16:00ak arte. Haurraren sarrera-irteerak: 08:00-09:30 eta 15:00-16:00.

Egun osoko edo arratsaldeko taldean abian jarriko dira, haur eskola gutxienez hiru haurrek aldi berean eskatzen badute.

Haurra ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotza baimenaz gozaten ari badira edota haurra zaintzeagatik eszedentzia egoeran egon eta arrazoi horrengatik laguntza ekonomikoa jasotzen badute. Hala ere, matrikula egin ahal izango dute lanpostura itzultzeko data baino hilabete lehenago, dagokion enpresa ziurtagiriarekin egiaztatuta.

## IZEN EMATEA

Haurra irailean hasteko, apirilko izen emate epean soilik, egin ahalko dute matrikula familiek. Hau da, irailean hasi nahi duten haurren familiek, apirilko matrikulazio epea izango dute matrikula egiteko epe bakarra. Ezin izango da epea kanpo matrikula egin.

Urtean zehar aldiz, epea kanpoko eskaerak hilabete bakoitzaren 1etik 10.egunera arte jasoko dira. Behin plaza esleituta, haurrak eskaera egin duten hurrengo hilabetearen lehen lanegunearan hasiko dira Haurreskolan.

Familiek ikasturtean zehar online edo Haurreskolan bertan eskaera entregatuta eman ahalko dute izena. Ekainean eta uztailean ez da haur berririk hasiko.

## ITSASONDOKO URKIPE HAURRESKOLA

1-2 gelan 13 haur: 12 matrikulaturik, plaza libreak 1  
0-1 gelan 8 haur: 0 matrikulaturik, plaza libreak 8



## 8. pala festa abian da!

Urteak daramatzagu Urkipen pala festa ospatzen, zortzi hain zuzen ere! Atsedean orduak dibertigarriago bilakatzen dira partida hauei esker.

**J**olas orduero bi izaten dira jokatzeko ditugun partidak eta bertan Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 6. mailara arteko ikasleek hartzen dute parte. Ahal den heinean adin tarreak eta generoak nahasten saiatzen gara gure aniztasunari erantzunez.

Edozein kirol praktikatu aurretik egiten den modura, hemen ere beroketa saio batzuekin ematen diegu hasiera atsedean ordui, ez zaigu lesionatzea komeni! Jarraian, jokalariek modelo bilakatzen zaizkigu segundo batzuek eta profesionalen pare argazkia

ateratzen diegu. Talde urdina eta talde gorria izendatu ondoren markagailua martxan jartzen da, eta jada prest gaude partida jokatzeko hasteko!

Markagailua hamarrera iristean partida amaitzen da, hau da, partida bakoitza hamar tantora jokatzeko da. Baina partidak amaitzean ez da jolasa amaitzen! Behin eguneko partidak amaituta palan jolasten jarraitzen dugu, kale egiten duena kanporatuz eta partaide berria sartuz.

Finala ere burutzen dugu, hau izango da pala festaren amaiera. Horretarako, ordura

arte jokatu diren partiden erregistroa egiten dugu. Bikoteen zerrenda eta emaitzen zerrenda Lehen Hezkuntzako eraikineko kortxoan erregistratzen ditugu.

Beraz, finalarekin eman go diogu aurtengo edizioari amaiera eta urtero egiten dugun bezala, partaide guztiei domina bana banatuko diegu. Izan ere, guztiok gara garaile, guztiok gara gure atsedean orduak dibertigarri bilakatzeko funtsezko pieza!

Gora Urkipeko pala festa!

.....  
 Itturri txiki guraso elkartek  
 helburu bat ezarri du  
 epe luzera: haurrek  
 menu osasungarriagoak,  
 jasangarriagoak eta  
 hurbilagokoak izatea.  
 .....

**L**eku askotatik iristen dira aldaketarako deiak eta, gehienez, berrikuntzak tantaka heltzen dira. Adierazgarrienak behartuta etorri ohi dira. Adibidez, arlo publikoko kontratazioen araudian egin behar izan diren aldaketen ondorioz Agenda 2030arekin bat egiteko.

Ildo horretan, murriztu egin da eskaintza ekonomikoaren pisua, eta indartu egin dira menuaren nutrizio balioak, jasangarritasuna eta hurbiltasuna.

Helburuetako bat da, elikagai gehiago izan daitezela tokikoak eta ekologikoak. Nahiko genuke produktuaren kudeaketa eskolen gain gelditzea, udalekin lankidetzan aritu daitezen eta ez dezaten enpresek erabaki. Osagaien jatorria



zutabe garrantzitsua da tokiko ekonomia dinamizatzeko. Sistema horren alde eginez gero, tokiko merkatutik datozen produktuak erosiko lirateke, eta horrek diru sarrerak ekarriko lizkieke auzoko edo udalerriko saltokiei. Horrekin batean, dena den, garrantzitsua da zer eta nola kozinatzen den, baita plateraren nutrizio kalitatea nork kontrolatzen duen ere.

Itsasondoko eskola bertzeaz dago, eta bertan, sukalde eta jangela berria egongo dira. Uste dugu aldaketa egiteko garai egokia dela. Horretarako, eta berritzeak irauten duen bitartean, umeen jangela Bizi Nahi elkartean egitea nahi da, eta hauen bazkaria Kaxintanen prestatzea, ahal den neurrian bertako produktuak erabiliz.

# Bertan egin, bertan jateko



Sukaldea  
eta jangela



# Eskola kirola

Aurreko alean Eskola Kirolaren inguruan hausnarketa egin behar genuela azaldu genuen. Eginiko saioak parte-hartzaileak eta emankorrak izan dira oso, laburbilduz hauek dira erronkak, eman beharreko pausoak eta erabaki direnak:

## 1. SAIOA

### ITSASONDOKO ESKOLA KIROLA BERRAKTIBATZEKO ERRONKA NAGUSIAK

- Gurasoen konpromisoa.
- Adostea formatua, helburuak eta sustatu beharreko balioak.
- Itsasondon zer egin nahi dugun pentsatu behar dugu. Ze izen, funtzionamendua, topaketak, lehia bai ez, boluntarioa izan behar duen edo ez...
- Formatua baldintzatuta dago maila bakoitzean daukagun haur kopuruaren arabera.
- Diru iturri berriak pentsatu behar dira.
- Eskola kirol ofiziala ez bada ateratzen, eskolaz kanpoko ekintza izan daiteke multi-kirola? Egutegia, batzuetan boluntarioak eta noizean behin norbait kontratatua. Konbinatu bat izan ahal daiteke? Martxan jartzeko, hasi gaitzen txikitik. Eta gero joango gara handitzen.

### HURRENGO PAUSOAK

2. saioan Itsasondoko eskola kirola nolakoa izatea nahiko genukeen adostuko dugu, eta horretarako zein baliabide dauzkagun aztertuko dugu.

### ITSASONDOKO ESKOLA KIROLA

- Helburu orokorra
- Helburu espezifikoak
- Funtzionamendua / Egutegia
  - Entrenamenduak/saioak
  - Noiz, iraupena
  - Taldekatzeak (adinak, mixtoak, ez mixtoak)
  - Hezitzailea/boluntarioak
  - Zein kirol landu ditzakegu?
  - Topaketak
  - Maiztasuna.
  - Beste herriekin noiz (kirol indibidualak, taldekakoak)
  - Topaketak familian?
  - Goierriko eskola txikien elkartean lanketa?
- Nola finantzatuko dugu?
  - Foru Aldundiko diru laguntza
  - Kuota familiei
  - Guraso elkarteak
  - Udal dirulaguntza
  - Babesle pribatuak?

## 2. SAIOA

### ITSASONDOKO ESKOLA KIROLA

- Helburuak
  - Aukera berdinak izateko haur guztiak, herrian geratzeko, kirolarekiko harreman osasuntsu bat eraikitzeko, sozializatzeko, euskara, kirol ezberdinak probatzeko aukera izatea, elkar errespetua, talde lana, gozamina, lankidetzeta, kooperazioa...
  - Ondo pentsatu zein kirol landu, hainbat gaitasun lantzeko eta generoen arteko desberdintasuna orekatzeko.
  - Lehia landu, hobetu nire burua, erosoago sentitu, gehiago gozatu... Nola kudeatuko ditugu lehiaren ondorioz sortzen diren gatazkak?
  - Irabazten/galtzen ikasi.
  - Lehia erronka moduan planteatu, talde moduan garatzeko.
  - Dekalogo bat sortzea, Itsasondoko eskola kirolak sustatu nahiko lituzkeen baloreak adieraztea. Guraso, haur eta hezitzaileen konpromisoa bilatu honetarako.
- Funtzionamendua / Egutegia
  - Entrenamenduak/saioak
  - Egutegia: urritik maiatzera LHko haur guztiek parte hartu ahalko lukete. Kintadaren haur kopuruaren arabera talde bat edo bi aterako liriteke.
  - Noiz, iraupena: astean behin saio bat, ordubete.



Boluntario talde bat osatuko genuke, elkar adostu bakoitzak zein kirol eman- go lukeen, zein balio sus- tatu nahi ditugun, zein den eskola kirolaren funtzioa.

Formula mixtoa ere erabi- liko dugu: boluntario eta hezitzailea

Zein kirol landu ditzakegu? Hilabete bakoitzean kirol bat, lau saio kirol horretan trebatzeko eta hiru hilean behin topaketa bat.

– Topaketak

Zenbatero: hiru topaketa urtean

Eskola kirolek egiten di- ren orokorretan parte har- tu: igeriketa, herri kirolak, mendizaletasuna...

– Nola finantzatuko dugu?

Foru Aldundiko dirulagun- tza.

Guraso elkarte

Udalak

### HURRENGO PAUSOAK

Maiatzeko lehen astean hiru- garren bilera bat egingo dugu. Ordurako bakoitzak pentsatu beharrekoak:

- Egutegia osatu: zein kirol hi- labete bakoitzean, topaketa noiz, saioa asteko zein egu- netan.
- Kirol zerrenda, zein kirol lan- duko ditugu?
- Asteko zein egun da egokie- na eskola kirola egiteko?
- Zein kirol instalazio erabili ahal izango ditugu?
- Nola komunikatuko dugu saio hauetan landutakoa he- rri? Gainontzeko gurasoei?
- Nola jaso ditzakegu haurren ekarpenak?

### 3. SAIOA

Kirolak erabaki eta saioen egu- tegia egin.

Kirol mota hauek:

1. Banaka, taldeka, koopera- zioa eta lehia orekan nahas- tu.
2. Herriko kirol klubekin elkarla- na: txirrindularitza handiekin eta txikiekin irristaketa
3. Kirol posibleen zerrenda egin.

Ze baliabide ditu herriak? Fron- toia eta herri irteerako zelaia.

Saioen ardura partekatua:

- 26 saio izango lirateke, aste baten LH 1,2,3 mailakoak eta hurrengoan LH 4,5,6. mai- lakoak, txandaka.
- Beti ostiraletan, 16:15-17:15.
- Saioak mistoak izango dira (genero guztiak elkarrekin).
- Saio guztietan Alaitz hezi- tzailea eta guraso boluntario bat edo bi egongo dira.
- Arautegi bat, dekalogo bat osatuko dugu Itsasondoko eskola kirolean sustatu nahi diren balioak zehazteko.
- Ikasturte hasieran guraso boluntario guztiek eta hezi- tzaileak bilera egingo dute, Urriaren 6an izango da.

TOPAKETAK: Goierriko topake- tetan parte hartuko dugu. Ur- tean lau izan ohi dira: igeriketa, herri kirolak, mendi martxa eta atletismoa.

Nola komunikatuko dugu saio hauetan landutakoa herrira?

- Hurrei eskolan aurrez aurre kontatuko diegu, eta euren ekarpenak jasoko ditugu
- Eskuorri bat prestatuko dugu; haur bakoitzak etxera eramateko. Bertan egutegia eta Itsasondoko eskola kirolaren balioak biltzen dituen dekalogo agertuko dira.
- Guraso guztiei mezu elektro- niko bat bidaliko zaie bolun- tario izatera gonbidatuz.
- Herriko aldiakarian egindako prozesuaren berri emango dugu.





Maiatzaren hasieran hasi ziren berriz herriko kale ekintzak eta ostiraleko gaztelekuko dinamikak gidatzen Alaitz eta Ainhoa hezitzaileak.

Herrian ezarriak ditugun printzipioen baitan lan egingo dute, eta dagoeneko egin dituzte herriko haurrekin eta nerabeekin harremanak!

Asteazkenetako ekintzak arrakastatsuak izaten ari dira oso, eta gaztelekuko gazteekin tope ibili dira Herri Egunerako, zein festetarako jittua berritzen esku bat botatzen!

Asmoa ez baita beraiek antolatu eta gazteek egin! Alderantziz, gazteei beraien bide automoto horretan ahal den neurrian esku bat bota eta gurasoa ez den, baina erreferente izan dezaketen heldu baten presentzia izatea da!

Alaitzek gainera kirol esparruko ikasketak ditu, eta guraso boluntarioekin batera eskola kirol parte-hartzailea gidatuko dute urritik aurrera!

Bejondeizuela eta ongi etorri Itsasondora!



## UDALEKUAK 2023 - LEHEN HEZKUNTZA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
26 <b>TALDEA GARAI!</b> SOMOS UN GRUPO!	27 <b>JOKO-JOLASAK</b> JUEGOS	28 <b>OSTADARRAREN EGUNA</b> DÍA DEL ARCOIRIS	29 <b>MINBIZIAREN SENTSIBILIZAZIO EGUNA / DÍA DE SENSIBILIZACIÓN DEL CÁNCER</b>	30 <b>URAREN EGUNA</b> DÍA DEL AGUA
3 <b>ALDERANTZIZKO EGUNA</b> DÍA DEL REVÉS	4 <b>HERRI KIROLOK</b>	5 <b>ORDIZIAKO AZOKARA</b> MERCADO DE ORDIZIA	6 <b>GINKANA</b>	7 <b>SAN FERMINAK</b>
10 <b>ZIRKU EGUNA</b> DÍA DEL CIRCO	11 <b>ARAMARA IRTEERA</b>	12 <b>TOPAKETA ENCUENTRO ALTZAGA ETA ARAMA</b>	13 <b>MASTERTXEF</b>	14 <b>ORDIZIAKO IGERILEKURA</b>
17 <b>ZUMBA ERRALDOIA</b>	18 <b>ANABASATI</b>	19 <b>PIRATEN EGUNA</b>	20 <b>URAREN EGUNA</b> DÍA DEL AGUA	21 <b>AZKEN FESTA!</b>

- BAINUJANTZIA, TOAILA, TXANKLETAK ETA ALDATZEKO ARROPA  
TRAJE DE BAÑO, TOALLA, CHANCLETS Y ROPA PARA CAMBIARSE
- KAMXETA TXURIA EKARRI (MARGOTZEKO)  
TRAER CAMISETA BLANCA (PARA PINTAR)
- PLAJAMAN JANTZITA ETORRI  
VENIR VESTIDOS EN PLAJA
- SAN FERMIN JANTZIA ETA EGUNKARI ZAHARRAK  
TRAJE DE SAN FERMIN Y PERIQUIGOS VIEJOS
- ARROPA EROSOA ETA URA  
ROPA CÓMODA Y AGUA
- MARRADUN KAMISETA ETA ZAPIA BURUAN  
CAMISETA DE RAYAS Y PAÑUELO EN LA CABEZA

### OHARRAK

- Ekintza batzuetarako zikintzeko arropa beharko dugu (arropa zaharra). Lehen egunean ekarri eta haurtxokoa gordeko ditugu.
- Azken egunean merendola egingo da. Bakoitzari gauza bat ekartzeko eskatuko diegu. Aurrerago zehaztuko dugu bakoitzak zer ekarri.
- Para algunas actividades necesitaremos ropa para ensucarnos (ropa vieja). Traedlos el primer día y los guardaremos en el haurtxoko.
- El último día se hará merendola. Les pediremos que traigan una cosa a cada uno. Más adelante detallaremos qué tendrá que traer cada uno.

**Asteriskoa duten egunetan ez ekarri hamaiketakorik.**  
No traer almuerzo en los días señalados con asterisco.



## UDALEKUAK 2023 - HAUR HEZKUNTZA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
26 <b>TALDEA GARAI!</b> SOMOS UN GRUPO!	27 <b>JOKO-JOLASAK</b> JUEGOS	28 <b>OSTADARRAREN EGUNA</b> DÍA DEL ARCOIRIS	29 <b>MINBIZIAREN SENTSIBILIZAZIO EGUNA / DÍA DE SENSIBILIZACIÓN DEL CÁNCER</b>	30 <b>URAREN EGUNA</b> DÍA DEL AGUA
3 <b>ALDERANTZIZKO EGUNA</b> DÍA DEL REVÉS	4 <b>2019-2020: PLASTILINA 2017-2018: GINKANA</b>	5 <b>ORDIZIAKO AZOKARA</b> MERCADO DE ORDIZIA	6 <b>HERRI KIROLOK</b>	7 <b>SAN FERMINAK</b>
10 <b>ZIRKU EGUNA</b> DÍA DEL CIRCO	11 <b>ARAMARA IRTEERA</b>	12 <b>TOPAKETA ENCUENTRO ALTZAGA ETA ARAMA</b>	13 <b>MASTERTXEF</b>	14 <b>ORDIZIAKO IGERILEKURA</b>
17 <b>ZUMBA ERRALDOIA</b>	18 <b>ANABASATI</b>	19 <b>PIRATEN EGUNA</b>	20 <b>URAREN EGUNA</b> DÍA DEL AGUA	21 <b>AZKEN FESTA!</b>

- BAINUJANTZIA, TOAILA, TXANKLETAK ETA ALDATZEKO ARROPA  
TRAJE DE BAÑO, TOALLA, CHANCLETS Y ROPA PARA CAMBIARSE
- KAMXETA TXURIA EKARRI (MARGOTZEKO)  
TRAER CAMISETA BLANCA (PARA PINTAR)
- PLAJAMAN JANTZITA ETORRI  
VENIR VESTIDOS EN PLAJA
- SAN FERMIN JANTZIA ETA EGUNKARI ZAHARRAK  
TRAJE DE SAN FERMIN Y PERIQUIGOS VIEJOS
- ARROPA EROSOA ETA URA  
ROPA CÓMODA Y AGUA
- MARRADUN KAMISETA ETA ZAPIA BURUAN  
CAMISETA DE RAYAS Y PAÑUELO EN LA CABEZA

### OHARRAK

- Ekintza batzuetarako zikintzeko arropa beharko dugu (arropa zaharra). Lehen egunean ekarri eta haurtxokoa gordeko ditugu.
- Azken egunean merendola egingo da. Bakoitzari gauza bat ekartzeko eskatuko diegu. Aurrerago zehaztuko dugu bakoitzak zer ekarri.
- Para algunas actividades necesitaremos ropa para ensucarnos (ropa vieja). Traedlos el primer día y los guardaremos en el haurtxoko.
- El último día se hará merendola. Les pediremos que traigan una cosa a cada uno. Más adelante detallaremos qué tendrá que traer cada uno.

**Asteriskoa duten egunetan ez ekarri hamaiketakorik.**  
No traer almuerzo en los días señalados con asterisco.

# Isa eta Isaac

Pandemia hasi aurretik, Sanlucar de Barramedatik (Andaluzia) Itsasondora heldu ziren. Euskal Herrian lan berri bat aurkitzeko itxaropenarekin eta ilusioarekin. Hemen familia polit bat sortu dute euren seme Liam-ekin.



## Noiz etorri zineten Itsasondora bizitzera?

2020ko urtarrilean, pandemia baino lehen.

## Non bizi zineten lehen?

Sanlucar de Barramedan. 70.000 biztanle dituen herri handi batean.

## Zergatik erabaki zenuten

### Itsasondora bizitzera etortzea?

Lanagatik, Isaac Zaldibiako enpresa batean hasi zen.

### Zer gogoratzen duzue etorri zineten lehenengo egunez?

Isaac: Etorkizuna "eraikitzen" hasteko aukera zela pentsatu nuen.

Isa: Nire herria botatzen nuen faltan, asko.

## Zein lanbide daukazue?

Isaac: Mantentze-mekanikaria naiz.

Isa: Kutxazaina supermerkatu batean.

## Itsasondoko zer ez zaizue gustatzen?

Ez dago ezer gustatzen ez zaiunik.

## Eta zer duzue gustukoa?

Herriko lasaitasuna eta jendea.

## Zein zaletasun duzue?

Isaac: Motorren mundua.

Isa: Irakurtzea, paseoak ematea...

## Janari bat?

Isaac: Janaria "pringa"rekin geratzen naiz. (Bere herriko ohiko platera).

Isa: Patata tortilla edo eskalo-pea.

## Edari Bat?

Ura (biek).

## Itsasondo edo Goierriko txoko bat?

Isa: Txindoki azpian dagoen auzoa (Larraitz) eta Itsasondo mugan dagoen parkea, hortik askotan paseatzen dut nire txakurrekin.

## Zerk sortzen dizue Irribarrea?

Gure seme txikiak, Liam-ek.

## Itsasondon biziko ez bazinete...?

Kostako edozein herri txiki batean, Hondarribian, Pasaian...

# Hitzar, bide berrien bila

Ekainaren 15ean egin genuen Hitzar energia komunitatearen lehen Batzar Nagusia, Kulturgunean. Besteak beste, 2022ko kontuak azaldu eta epe labur eta luzera kooperatibak dituen asmoak zehaztu genituen.



Iraolako ustiatetikoko plaken kokapena.

La-ia urtea igaro da Hitzar Koop. S. komunitatea sortu zenetik. Urtea betetzerako, urteko jardueraren diru kontuak azaldu behar izaten zaizkie bazkideei, eta helburu hori bete asmoz, batzarra deitu genuen, ekainaren 15ean, Kulturgunean.

Batzarraren hasieran, orain arte egindako ibilbidearen eta lanaren berri ere eman genuen, eta amaieran, martxan dagoen Iraolako proiektuaren nondik norakoak azaldu genituen.

Izan ere, komunitatea sortu zenetik, lanean jardun du talde-txo batek, eta lehen proiektua ere garatu da: autokontsumo partekatua eredu izango duen Iraola baserriko ustiatetikoko instalazio fotovoltaikoa jartzeko proiektua.



Autokontsumo partekatua energia kontsumitzeko modu berri bat da; etxebizitzetatik hurbil dauden iturrietatik energia berriztagarria sortzean datza. Modu horretan, murriztu egiten da ingurumen inpaktua eta "zentro handietatik" garraiatzeko beharrak eragindako eraginkortasun galerak ere nabarmen murrizten dira. Iraolako instalazioak 35.649 W-ko potentzia du, eta 39.089 kWh energia sortuko du guztira. Horri esker, 32 hitzarkideren etxebizitzek izango dute onura, eta ondorioz, haien argindarraren faktura murriztuko da. Gainera, etxebizitza horiek energia %100 berriztagarria kontsumitu ahal izango dute, eta, horrela, udalerriko jarduera ekonomiko eta soziala deskarbonizatzen lagunduko dute.

la 40.000 euro kostako da 35 kW-ko instalazioa jartzea, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak instalazioak jartzeko dirulaguntza deialdira aurkeztea erabaki genuen, eta emaitza onak lortu ditugu: dirulaguntza lortu dugu, eta, hala, instalazioaren erdia finantzatu dugu, 27.822 eurotako laguntzari esker.

Auzolanak eta ahaleginak bere emaitzak eman ditu, beraz. Albiste horrek bultzadaxoa eta animoak eman dizkigu lanean jarraitzeko, aurrera egiteko, amesten segitzeko. Honetan guztian sinisten dugulako, uste dugulako egon badagoela energia eraldatzeko beste modu iraunkorrago bat eta ingurumena gehiago errespetatzen duena.



## HERRITARREK SORTUTAKO GOIERRIKO LEHEN KOMUNITATEA

Herritarren ekimenez sortu den lehen energia komunitatea da Hitzar. Herritik herriarentzat sortutako lehen komunitatea. Inguruan badira tokiko energia komunitate gehiago (TEK-ak), baina horiek ez dira herritarrek sortuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortuak dira, eta kudeaketa, oraingoan, enpresa pribatuen esku dago. Guk harro esan dezakegu auzolanetik eta herritarren ahaleginetik sortutako Goierriko lehen komunitatea garena.

Gure komunitatea, HITZAR, Europako araudiak ezarritako jarraibideen arabera eratu da. Araudi horren arabera, herritarren zeregina da energia-trantsizioan hiri-ingurune eta komunitate jasangarriak lortzea, Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko dagokionez, parte-hartzea sustatuz.



## AURRERA BEGIRAKO ASMOAK

Orain arte egindako lanarekin jarraitu eta aurrera egitea da Hitzarkideen asmoa. 2022ko urri amaieran bota zituen sustraiak Hitzar kooperatibak. Enborra sendotu eta adarrak zabaltzea da orain energia komunitatearen asmoa. Hala, erronka potoloak jarri ditugu: urtea amaitzerako, proiektu berrien azterketa egitea, herritar gehiago animatuz, eta, nola ez, herriko enpresetara ere gerturatu nahi dugu, elkarlanean eta auzolanean guztion onurarako den eredia bilatzeko.

Kooperatiba sendotzea da asmoa, lanean jarraitzea baita gure asmoa, proiektu berriak gauzatzea, instalazio berriak ezartzea. Azken batean, herritarren eta herritarren burujabetza energetikoa lortzea da gure etorkizunerako jomuga. Eta horretarako, jendearen babesa eta indarra behar dugu, hitzarkideak behar ditugu. Herritarrek Hitzar bere egitea nahi dugu. Denon artean, herrirako onuragarriak izan daitezkeen proiektuak erabaki eta martxan jarri nahi ditugu.



## GOIERRIRA SALTOA

Baina gure ametsak haratago doaz oraindik, gure jarduna ez baitugu Itsasondora soilik mugatu nahi; gure nahia da Hitzar Kooperatiba Goierri eskualdera zabaltzea, Goierriko beste hainbat udalerrik eta herritarrek gurekin bat egitea. Badakigu ondo aztertu eta pentsatu beharreko bidea izango dela, baina berriro diogu, gogotsu gaude eta proiektuan sinisten dugu. Honek aurrera egiteko "energia" ematen digu, bide berriak zabaltzeko indarra!



## NORK HAR DEZAKE PARTE?

Norbanakoak edo herritarrak, enpresek edo udaletxeek... Guztiek har dezakete parte gure komunitatean.





## Eustakio Mendizabal Benito

.....  
 Eustakio Mendizabal Benito  
 Txikia-ren familiaren izenean,  
 lerro hauek idatzi nahi izan  
 ditugu aurreko hilabeteetan  
 bere heriotzaren urteurrena  
 zela eta antolatutako  
 ekimenarekin lotuta.  
 .....

**5**0 urte bete dira gure fami-  
 lian semea, aita, senarra,  
 anaia eta osaba zenari  
 agur esan genionetik. Gutako  
 asko ez geunden ordu harta-  
 rako jaiota, baina gurasoek,  
 lagunek eta ingurukoek lan  
 handia egin dute garai hartan  
 gertatutakoa bizirik manten-  
 tzen eta etorkizuneko mem-  
 orian gordetzen.

Horixe bera da, hain zuzen  
 ere, herri txikien ondare eta  
 altxor nagusia: iraganaren mem-  
 oria gordetzea eta etorkizu-  
 nerako baliagarri jartzea, eta  
 aitortza ematea, hori baita herri  
 baten aberastasuna. Eta, beste  
 behin, horixe bera sentitu dugu  
 Eustakioren bizitzan berebiziko

garrantzia izan zuten hiru herri  
 txikitik: Algortan, Ondarroan  
 eta Itsasondon. Orain mende  
 erdi bezalaxe, algortarrek, on-  
 darroarrek eta itsasondoarrek,  
 Euskal Herriko beste hainbat  
 txokotatik gerturatu ziren bes-  
 te batzuek bezalaxe, gertakari  
 horren eta hamarkada hartan  
 jazotako beste batzuen harira  
 antolatutako ekitaldietan dena  
 eman duzue.

Guztiak izan dira hunkigari-  
 rriak eta xumeak aldi berean,  
 baina denen gainetik, gure her-  
 rian, Itsasondon, egindakoa  
 aipatu nahiko genuke. Zoragari-  
 a izan zen herria pilotalekuan  
 elkartuta ikustea: goizean egin  
 zen ekitaldia, gero etorri zen  
 bazkaria, kantuan emandako  
 une haiek... Eta, zer esanik ez,  
 prestatutako bideo hura. Zala-  
 lantzarik gabe, lantalde bikai-  
 na egon da horren guztiaren  
 atzean. Aitortza horrekin, fami-  
 lia osoak urte askoan barruan  
 izan dugun mina baretzen  
 lagundu diguzue eta, aurretik  
 ere harro bageunden, are eta


harroago sentitzen gara orain  
 zuen herrikide izateaz. Eskerrik  
 asko, benetan.

*Harro hadi Kantauri itsasoa*  
 izan da euskara eta memoria  
 oinarri izan dituen ekimenaren  
 izena. Orain 50 urte bezalaxe,  
 euskara eta herria dira gure  
 jaioterriaren bihotza eta hala  
 izaten jarraituko du, gure au-  
 rrekoei eta belaunaldi berriei  
 ere hala zor diegulako. Baina  
*Harro hadi Kantauri itsasoaz*  
 harago joanda, gure familia  
 itsasondoarra izateaz harro  
 dago. Gure herri eta gure aitak,  
 anaiak eta osabak Euskal Herri  
 osoan zehar zabaldu zuten gure  
 herriaren izena eta gu ez gara  
 gutxiago izango. Harro esango  
 dugu beti itsasondoarrak gare-  
 la, herri oso baten goxotasuna  
 eta maitasuna baitaramatzagu  
 barruan.

Horregatik guztiagatik, eta  
 beti alboan izan zaituztegu-  
 lako, eskerrik asko bihotz-  
 bihotzez herri osoari.

**Mendizabal-Benito familia**

<https://eu.wikiloc.com/ibilbide-senderismo/urkiko-itzulia-120922885#wp-120922890>



## Itsasondoko mendia: Murumendiko Itzulua

Aurrekoan herrigunetik Urkiko auzoraino iritsi baginen, oraingoan, Urkiko plazatik Itsasondoko mendi altuenari buelta emango dion PR-a egitera gonbidatzen zaituztegu.

**L**ehendabiziko igoeran bi ibilbideak bat datoz, zuhaizpean doan aldapa gora Larrazkandako leporaino. Hemen, goiko belardiak zeharkatzen ditugunean banatuko dira bi ibilbideak. Oraingoan

eskuin aldera hartu eta laster azalduko zaizkigu Goierriko harana eta mendien ikuspegi ederrak. Gertuko mendiei dagokienez, Mallutz, Zormendi eta Usurbe ditugu hurrenez hurren.

Eizeatako gurutzean berriro ere eskuinera hartu (ezkerreko bidea Mandubiko mendatera doa) eta gorantz abiatuko gara. Poliki-poliki, Arrapaitzeko iturria eta interpretazio-panela pasatu ondoren, Murumendiko tontorra ezkerretik inguratze-

ko bidegurutzera iritsiko gara (puntara igo nahi izanez gero beste 80 metro igo behar).

Hortik aurrera beherantz joko dugu pagadi aldapatsu batetik, Beasainekin dugun mugarrietako bat igaro arte. Bidezidorra hemen bukatuko zaigu eta berehala iritsiko gara mendiko pista batera. Hortik, Zarate mendiaren hegoaldeko magalean barrena, Beasain, Beizama, Bidania eta Itsasondoko elkartzen dituen Domikoko mugarri ederrerraino iritsi arte jarraituko dugu.

Hau ikusi ondoren, 25 metro atzera egin, eta ezker aldera jiraturaz, beherantz doan pista jarraituko dugu, ibilian-ibilian Lizardiko baserrietaraino iritsi arte. Tartean anfibioen putzua, Itsasondoko baso ederrenak eta Murumendi azpian baso horiek berreskuratzearren egindako landaketak ikusteko aukera izango dugu. Behin Lizardiko bidera iritsiz gero, eskuinera hartuz, auzo honetan geratzen diren bi baserriak eta errota ikusiz, Lizardiko erreka zeharkatu, eta baso eta erreka txikien artean doan antzinako gurdi-bidetik Urkiko plazara eroso bueltatuko gara.



# Iñaki eta Gorka Telleria

## Bi anai txirridularitzari lotuta

Iñaki Telleria (1974) eta Gorka Telleria (1976)  
anaiek txirindularitza sustatu dute  
Goierri osoan zehar.  
Pasioz bizi dute gurpil gaineko kirola.



**Txirindularitza zaleak zarete. Asko ibiltzen zarete bizikletan?**

Gorka: Bai, ni saiatzen nauk, hilabetean nire kilometroak egiten dizkiat.

Iñaki: Ni arrazoi ezberdinen-gatik oso gutxi ibiltzen nauk, abuztuan zerbait, bestela beti aurkitzen diat arrazoiren bat aurretik ipintzeko. Beti ibili behar nauk, ibili behar nauk... baina ezin.

G: Ba etxean bi dauzkak laguntzeko. Orain dela urte batzuk bizikleta bat utzi nioan, eta ez nioan kobratu. Esan nioan hilabetean 250 kilometro egiten bazizkian, ordainduta legokeela. Urtean 2.500 kilometro. Abendua iritsi zen eta...

I: Kilometro asko dituk.

G: Jartzen baldin bahaiz gutxi dituk, baina...

**Txirindularitza aitzakia hartuta, hor zabiltzate zenbait saltsatan sartuta. Ez dakit ekipo bat den, fundazio bat den, elkarte bat den... Zer da?**

G: Klub bat, eskola bat. Ez gara fundazio bat, saiatu ginen, baina oso zaila da, egin izan diren abusuengatik. Hortaz, irabazi asmorik gabeko erakundea da gurea. Zonaldeko kirola bultzatzea daukagu helburu, hasi Zegama, Segura, Idiazabal, Mutiloa, Ormaiztegi, Zerain, Ezkio-Itsaso, eta gero buelta honetan ba Lazkao, Ataun, Ordizia, Zaldibia, Gaintza, Legorretaraino, Itsasondo, Arama... Goierri bailarako esparru handia hartzen dugu, eta afizio handia dago. Gero zeudek urteak edo taldeak, hobeak edo okerragoak. Orain ez zekiat zenbat ume dauden eskolan.

I: 62 eskolartekoetan, gero kadeteak Beasainera pasatzen dituk, hitzarmen bat daukagulako. Kadeteetan 13 zeudek

aurten eta gero jubeniletan 18 zeuzkeagu. Aurten afizionatuen ekiporik ez zeuzkagu. Eta neskak Tolosako ekipora joan dira, azken urteetan, aurten adibidez nire alaba Enara.

G: 80-90 haur eta nerabe... azkenean lana dago. Gero eskerrak eman behar zaizkie Ampo, Ikolan, Mujika txirinduarak, Irizar, Orkli,... eta dauzkagun beste hainbat babesleei. Urtero laguntzen digute, aortazio ona egiten dute, eta horri esker atera dezakegu proiektua aurrera.

I: Eta ez dute emaitzarik eskatzen. Obra soziala da. Eta udaletxeek ere laguntzen dute, Ordiziakoak, Lazkaokoak, Beasainen ez dugu ezer egiten Loinaz dagoelako... Eta orokorrean ere esan behar da herri txikitakoek laguntza gehiago ematen digutela. Ez du zertan ekonomikoa izan. Lasterketak antolatzeko, esaterako, Itsasondoko udaletxean zirkuitoa eskatzen genuenean, edo frontoia behar dugula negu partean ginkanak egiteko... ez dugu arazorik izaten. Herri handiagotan beti zailagoa duk.

G: Kirol oso konplikatu duk. Ez da frontoi batean jolasten den zerbait, baimenak lortzeko, errepideak mozteko, zaila da. Eta txirindulari gazteen gurasoak konbentzitzea ere askotan kostatzen da errepideak ematen duen beldurra dela eta. Hala ere, esan behar da azkeneko urteetan zorte dezente izan dugula istripuei dagokienean.

I: Ni Gipuzkoako Federazioan ere sartuta nago, eta gure kexetako bat da proba bat antolatzeak diru asko suposatzen duela, hau txirindularitzan bakarrik gertatzen da. 600 euro inguru: anbulantzia eta

medikua, esaterako, derrigorrezkoak dituk edozein mailatako proba bat antolatzeko, izan ere, Espainia mailan lege bat zegok, eta derrigorrezkoa duk. Beste kirol guztietan ez dute halakorik eskatzen. Orain ikasi edo jakin dugu errepidea mozteko "kirol-proba" arrazoia erabili beharrean udalak errepide moztea eskatzen badu, ez dela derrigorrezkoa medikua eta anbulantzia izatea. Hala ere, gu anbulantzia egotearen aldekoak gaituk. Baina medikuarena diruarekin ere ez duk lortzen, arazoa zegok medikuak lortzeko.

**Zer pentsatzen duzue Tourraren inguruan?**

G: Euskadiko instituzioak gatzatu behar dituela 25-30 milioi euro, gero beste kirol guztietarako egongo ez direnak, eta, gainera, diru hori enpresa pribatuek jasoko dutela. Pentsa diru horrekin zenbat gauza egin daitezkeen. Ni ez naiz Tourraren alde edo kontra agertuko, baina gero Amorebietako lasterketa bertan behera gelditzen da, besteak beste. Getxokoa justu-justuan egiten da. Ordiziakoa ere bai. Hemengo lasterketak sustatu beharrean horrelako makro ekintza batean joango da dirua, eta hurrengo hamar urteetako aurrekontuak jango dituzte.

I: Guri, Gipuzkoako Federazioari, 1000 boluntario eskatu zizkiguten Gipuzkoako etapetan bidegurutzeetan aritzeko. Boluntario. Dohain. 5-6 ordu aritzeko. Guk ez zitzaigula zuzena iruditzen esan genien, izan ere, bagenekien horretarako diru bat zegoela. Esan genien



Eneko Telleria garaile Urnietan.



Oier Telleria Berastegiko erlojupekoan.



Neguko eskolarteko Entrenamendu bat Itsasondoko zirkuituan.



2022ko eskolarteko Entrenamendu bat.

guk 1000 boluntario bilatuko genituela, baina trukean kotxe bat eskatu genuen Gipuzkoako Federazioarentzat. Etorriko ziren oinarrizko lasterketetan ibiltzeko, noski. Bizkaiko eta Arabako Federazioek gure eskaera ikusita, berdina eskatu zuten, hau da, 100.000 euroren azpiko eskaera. Erokeria bat iruditu zitzaien. Ez dituzte boluntarioak lortu, eta, orain, 370.000 euroko partida berezi bat atera ditek, boluntarioak kontratatu ahal izateko, eta hala ere ez dituzte lortu. Oraindik eskaera berezi bat egingo duten susmoa daukagu. Tourra egingo dela argi dugu, eta azkenean ondo atera beharra daukala badakigu, nahiz eta erabat alde ez egon.

### Zuek Gipuzkoa mailan ibiltzen zarete, ezta?

G: Gure taldearekin, bai. Jubenilak Euskadi mailan ere ateratzen dituk, edota Kantabriako buelta egiten diagu, besteak beste.

### Zaharrenak zer dituk, jubenilak?

I: Guk aurren jubenilak zauzkaugu zaharrenak, eduki ditugu afizionatuak ere, baina aurren ez dizkiagu.

G: Afizionatuen ekipoa izan genuen lehen, Ampo eta gero Laboral Kutxa.

I: 2012tik 2020ra.

### Noiz hasi zineten ekipoa?

G: Ni duela 30 urte.

I: Ni anaia baino urtebete beranduago. Duela 29 urte.

### Zenbat lagun zabiltzate talde-teknikoan?

I: Zuzendaritzan momentu honetan 12-13 inguru. Ni Goierriko txirindularitzako lehendakaria nausk, Gorka lehendakari ordea. Lan-talde handia dugu. Hortik aparte Ordiziako Txirindularitza Elkartean eta Ijittu Kirol Elkartean ere bagaude.

G: Eta gero zeudek sekziok. Ziklo-krosekoa taldetxo batek eramaten du, pistakoa beste batek, eta gure eta gure txirindulari izandakoen seme-alabak ere hasi dira orain errepedean ibiltzen... hauek izango dira gure ondorengoak.

I: Lehen esan bezala, gauza askotan sartuta gaude, eta de-

nera ezin iritxita ibiltzen gara. Nire kasuan, adibidez, duela bi aste, nire alabak Amurrión korritzen zian, nire semeak Urnietan, eta ni Zumarragako lasterketan egon ninduan, eskolartekoen Euskadiko Txapelketa huen eta. Gipuzkoako Eskolarteko arduraduna ni nauk. Alaba ekipoarekin joan huen, semea anaiarekin eta ni Zumarragara joan behar Gipuzkoako arduradun bezala.

G: Ni, adibidez, orain momentuan, normalean ez naiz lasterketetan kotxean joaten, beti motoan. Iaz 35 lasterketa inguru egin genizkian. Etxekoen pazientzia kontuan hartu behar da, eskerrak eman behar familiari gauza hauetan ibiltzen uzteagatik. Eta orain zebilek semea pilotan, futboleko, bizikletan... baina beno, moldatzen gaituk.

I: Bai, bai. Hurrengo asteburuan nik zeukeat ostirala, larunbata, igandea eta astelehena, Gipuzkoako itzulia. Federazioan nago, ekipotik 18 txirrindulari zeuzkeagu, batek klabikula hautsi dik, hortaz, 17 zijoaztek korritzera, hor bi aldeetan egon behar, talde bezala, eta Federazio bezala. Kasu honetan, Federazio bezala gehiago ibili behar.

### **Azken urteetan istripurik autoein?**

G: Ba zortea izan diagu, azken urteetan kotxeekin-eta ez diagu istripu seriorik izan. Azkenean kilometro asko egiten dizkiagu urtean zehar eta batzuetan gertatzen dituk.

I: Guk beti berdina esaten diagu, tontokeria bat ematen dik, baina diferentzia duk "ostia..." edo "ostia!". Hau da, kristoren eskapada egin duk, edo aberia egin duk (istripua edo tokenen bat).

G: Bai, bai. Ez diagu arazo handirik izan. Eta auto nahiko berriak erabiltzen dizkiagu. Furgoneta bat erosi genuen. Azkenean maiz berritzen badituk autoak, hobeto. Hor beste arazo bat ere badiagu. Kotxe berria erosteko, mailegua eskatzera joaten haizenean ezin duk elkartearen izenean hartu, pertsona fisiko batek zeukak jarri beharra nomina, izena eta gainerakoa... Eta hik daukak asumitu beharra letra txikia.

### **Gazteak ba al daude inplikatu zuten talde honetan?**

I: Egia esan, egunetik egunera gazteak gutxiago inplikatu dituk, ardura gutxiago hartzen dizkitek.

G: Zuzendaritzan gazte batzuk bazeudek, baina egia da 20 urterekin buruan beste gauza batzuk izaten dituk. Baina eszepzioak ere badaude eta ez gaituk kezkatzen, tartean, Aitor Garmendia ere hor zegok.

### **Urtean zenbat karrera?**

I: Eskolartekoetan teknifikazioen eta lasterketen artean geurek 33 dizkitek, eta jubenetan 55-60 inguru. Normalean Gipuzkoan, baina Nafarroa, Araba, Bizkaia edota Kantabriara ere joaten gaituk.

### **Eta zenbat lasterketa antolatzen dituzue?**

G: Orain gutxi.

I: Klub bezala eskolartekoenak. Baina gero laguntzen diagu eskolartekoetan eta bailarako lasterketa gehienetan. Esaterako, kotxe neutroarena gure klubak egiten dik, bidegurutzeetan, moto-enlazeetan... aritzen gaituk.

### **Ginkanak ere antolatzen dituzue.**

G eta I: Bai. Itsasondon, Ordizian, Ataunen, Araman,...

I: Eta, esaterako, eskola-kiro-

lean azkeneko bost urteetan azkeneko jardura txirrindularitza duk. 30 bat etortzen hituan, aurten 110 neska-mutiko izan dizkiagu. Ginkana antzeko bat egin genian pilotalekuan eta plazan, Itsasondon. Gero bi zirkuitotara eraman genizkian. Jaso ondokora eta Lizardiko bidegurutzekora.

### **Azken urte hauetan jende gehiago hasi al da bizikletan ibiltzen covid-a dela eta?**

I: Bai, eta errepidean baino gehiago, agian, mendian. Eta asko eta asko bizikleta elektrikoarekin. Mendia, errepidea baino seguruagoa iruditzen zaielako edo.

G: Bai, eta bizikleta elektrikoa hemen zegok paisaiagatik edo orografiagatik soluzio bikaina duk. Izan ere, hik momentuan aukeratzen duk zenbateko laguntza behar duan. Hi gaur Murumendira igotzen haiz mountain bike normal batekin, eta, bihar, ez haiz itzultzen. Bizikleta elektrikoarekin, aldiz, gaur joango haiz eta bihar agian, ere bai.

I: Jendeari iruditzen zaiok bizikleta elektrikoarekin joatea motoarekin joatea bezala dela, baina ez. Eman egin behar zaiok. Bai, ordea, bizikleta normalarekin baino askoz ere errazago duk.

G: Herrian, adibidez, talde bat sortu dituk eta dezente ibiltzen ari dituk. Ez dago zertan konpetizioan ibili beharrik. Hi, normalean, Igaratzara ez hintzen joango bizikletaz, eta bizikleta hauekin aukera daukak. Iñaki: Garai batean egiten genian Igaratzako buelta.

G: Bai, baina orain dauzkak 50 urte eta kilo gehiago...

## Duela gutxi emakume kuadrilla bat izan zen Itsasondoko plazan. Nolatan?

I: Hilean behin, Gipuzkoako Federazioaren bitartez biltzen dituk. Ibilbide ezberdinak egitearren leku desberdinetara joaten dituk. Itsasondon, Tolosan, Azpeitian, Oñatin... Izan ere, emakume askori gertatzen zaiena duk beraien inguruan bakarrik ateratzen direla, eta askotan bakarrik, hortaz, elkartzeko hauek egiten dituk talde-dinamika sortzeko. Giro polita sortu ditek. Eta hor ere lagundu egin behar.

## Eta zertan da moto-enlazeen gai hori?

G: Beharrezkoak gaituk, baina inork ez dizkik moto-enlazeak aseguratu nahi, inork ez dik babesema ematen... Nik etxetik nire motoa eramaten diat, gasolina botatzen zioat, kubiartak aldatzen zizkioat, olioia jartzen zioat... dena musu-truk. Boluntario, baina urtean 35 karrera... Dirutza duk. Gainera, aseguruak ez dute babesema eman nahi, erriko bat izan genian, 16.000 euroko aberia batekin, eta... Beste forma bat eman behar izan zaiok eta Diputazioa sartu duk, seguru batekin ere nahiko lotuta zeuzkeagu gauzak... baina asko ari zaiguk kostatzen.

I: Duela pare bat urte hasi hituen moto-enlazeen federazioa sortu nahian. Indar pixka bat hartu dute, baina zailtasun handiak zauzkatek.

G: Eta orain, Ertzaintzak lasterketa bat baimentzeko ezinbesteko dituk 10-14 moto-enlaze. Minimo horiek ez baldin bazeudek, ez zegok baimenik. Eta nork asumitzen dizkik moto-enlazeen kostuak?

I: Eta nork ordaintzen du aseguruak?

G: Gipuzkoako Trafikoko kuartelean egon beharko lituzkek 96 motorista ertzaina. Eta 36 zeudek. Hortaz, ertzaina gutxiago bidaltzen dituzte eta moto-enlaze gehiago behar dizkiagu. Eta nork ordaintzen dizkik? Segurtasun sailak ez, kirol-sailak ez... inork ez. Eta gutartean.

I: Guztiak onartzen ditek moto-enlazeak beharrezkoak direla, baina nola legalizatu, nola ordaindu kostuak... ez zekik inork.

## Nola finantzatzen zarete?

G: Kluba, babesleen bitartez, diru-laguntzaren bat jasoaz, ... errifak saltzen dituk.

I: Bainon ez pentsa dirulaguntzak ikaragarriak direnik, Diputazioak 2.500 euro jasotzen dizkiagu adibidez, gu gaituk eta kopuru handieneko kluba.

## Eta bizikletak norenak dira?

G: Jubenil arte txirrindularienak. Afizionatueta normalean, ekipoarenak.

I: Afizionatuen taldea gurenean txirrindulari bakoitzari bizikleta bat eman genioan, baina gurpilik gabe. Entrenatzeko bakoitzak bere gurpilak erabili behar zituen eta konpetitzeko guk emandakoak. Josekruz Mujika arduratzen zen astean zehar puntuan ipintzen. Horrela, bagenekian lasterketetan gurpilak ondo zeudela.

G: Hik pentsatu ezak bizikleta bat 3.000 euro kostatzen dela, montonera bat zegok eta bi txirrindularik bizikleta puskatzen baditek, eguna egin duk, astea eta hilabetea ere bai.

Iñaki: Eta horrelakoak nahi baino gehiagotan gertatzen dituk. Behin, denboraldiko lehendabiziko lasterketan bi bizikleta hautsi hituan Zumaian, adibidez.

## Oporrak hartzen al dituzue?

I: Txirrindularitzan ez. Denboraldia gutxi gorabehera bukatzen duk irailaren bukaeran, eta, urriaren erdialdean ziklo-krosa, pista eta eskolarte-koak hasten dituk.

G: Nire kasuan, nik egiten dudana gauzetan, uztaile, iraila eta urria dituk hilik okerrenak, hurrengo denboraldiaren presatuta eta diru lortzeak hasten dituk eta.

## Erronkarik?

G: Nik bat bai. Altzagarateko igoera. 40 urte dituk lehenengo aldiz egin zela, eta, berriro ere egitea gustatuko litzaidakek. Esaten genuen herriko festetatik ateratzea, festetan ere nahiko saltsa izaten duk eta. Altzagarateko igoera popular bat egitea, herri-mailakoa, herriko festen hurrengo asteburuan. Herritarrek igotzea eta ondoren bazkari bat antolatzea plazan. Profesional batek etortzea zeukak Altzagarateko igoera irabaztera, baina helburua ez huke hori izango, herriko 50-100 lagun bizikletan Altzagaratera igotzea baizik.

I: Nik beheko zirkuitoari bizi gehiago ematea diat erronka, bai ekipo bezala, baina baita herriko haurrekin. Federazioaren bitartez hastapen kanpaina bat egin diagu aurten herri eskolan, eta polita izan duk.

G: Horrekin lotuta ondo egongo huke herrian txirrinduak garbitzeko puntu bat jartzeko. Eta, erronka bat jarri genian, eta ez diagu lortu. Herri-mailan talde bat zebilek txirrinduan eta Madozko buelta ematea, 100 kilometroko buelta bat da. Talde bat sortu genian, zikloturista asko zebilek orain herrian eta, serio-serio entrenatzen, baina ez diagu egin. Ea aurten. Herri-mailan ekintza gehiago ere antola daitezkek.

# Literatura tailerra

Estitxu Irisarri Egiak eta Agurtzane Anduetzak Oinarrizko Hiztegi Poetiko Bifokala liburua argitaratu zuten 2022ko ekainean.



**H**orren harira, Itsasondon literaturaren inguruko tailer bat egiteko pres-tutasuna erakutsi zuten. Hiru atal izan zituen tailerrak: irudiekin sortzeko dinamika, testuei jarraipena emateko dinamika eta galderen tarte. Dinamika guztiak argitaratutako poema bildumako gaitegiarekin lotutakoak izan ziren.

Hartzailea sortzaile bihurtzea helburu zuten bi dinami- ketan, bertaratutakoak binaka aritu ziren testuak sortzen, eta belaunaldi desberdinen fokuak ere elkartu ziren bikoteetan. Tailer hartako gozotasunean eta epeltasunean bildu zen sormenari eta aniztasunari ez zioten ihes egiten utzi nahi izan egileek, eta parte hartzaileen ekarpenen bilduma egin eta hementxe argitaratzeko aukera dugu orain.

## IRUDIEKIN SORTU

- 1) **Ametsak** iradokitzen zituzten bi irudiren aurrean:  
*Amets baten bila, lanak gain hartu.*  
Ordu gehiegi lan egin gure ametsak lortzeko.  
Monotoniako loguretik, ametsen mundura.
- 2) **Askatasuna** iradokitzen zuten bi irudiren aurrean:  
Handitasunaren edertasunean, txiki.  
*Askatasuna, libertadea.*  
Adrenalina naturan. Hutsunearen onura.
- 3) **Bizia eta bizitza** iradoki nahi zuten bi irudiren aurrean:  
Bizi ezatik, esperantzara.  
Bizitzari gogor eustea, bizi-ezinik dauden egoera batean.  
*Bizitzaren sustrai infinitoak, bizitzaren indarra eta bizi-iraupena.*
- 4) **Euskalduntasuna eta fedea** irudikatu nahi zuten bi irudiren aurrean:  
*Kultura baten bukaera.*  
Euskalduntasuna.  
Aberria eta antzinako tradizioak.  
Eustakio hiltzean gertatutakoak.  
Gertatu behar ez zuten gauzak.
- 5) **Garapena** irudikatu nahi zuten bi irudiren aurrean:  
Eboluzioaren gaitasuna.  
*Aurrera egiteko adaptatu gara. Eboluzioa.*  
Eboluzioa eta eraldaketa; mutazioa.

## HITZEKIN SORTU

### 1 Asaben baratza eta loreen arantza.

*Arantzen edertasuna*

Gure arbasoen jakituriaren eta tradizioen galtzea.  
Berreskuratzearen garrantzia.  
Belaunaldi berrien gabeziak, hutsunea, ziztatzan duena  
Kromletx  $\longleftrightarrow$  sorgin baratza.  
Antzinako haziak.

Aurreko belaunaldiek ereindakotik datoz lore berriak beraien akatsekin.

### 2 Bakteria-multzo ibiltariak gara, erabat desgizakituak.

Deshumanizazioa, desnaturalizazioa oinarritzko baloreen desagertzea.  
Indibidualismoaren garaian bizi gara, ez dugu kolektibo bezala pentsatzen ez sentitzen.  
Pertsonen autoezagutza eza.

Mundua norbere zorionean oinarritzen da,  
auzolana galdu da.  
Dena eginda eta orain behar dugu.


*Bakunak dauden bitartean, bada esperantza.*

### 3 Negarra eta eztabaida izan duenak gogoaren jaki, maitasuna zer den nola daki?

Etxean maitasuna ezagutu ez duenak kanpoan ezagutu beharko du.  
Baina arazoak izango ditu, nahi gabe negarra eta eztabaida bilatuko dituelako, hori delako berak ezagutzen duena.

*Perspektiban dago maitasuna*

Maitasunaren desira, ezezaguna izan arren...  
Maitasuna ezagutzeko, erabat irekiko da sentimendu horretan.  
Bila eta bila, aurkitu arte!



Irudi bidezko ekarpena ere izan du tailerrean proposatutako gai batek! BaSaMaren (Barandiaran Sarasola, Maialen) *Ametsen irulea* deituriko lan hau:

# TxaTxoZiklo

Asteburu ahaztezina  
Itsasondon: abentura  
monozikloan eta mendian



Itsasondo Gipuzkoako biho-  
tzean dagoen herri txiki bat  
da, mendi eta paisaia ikus-  
garritz inguratua. Maiatzeko  
lehen asteburuan, hainbat adin  
eta jatorritako 20 monoziklista  
bildu ziren bertan, abenturaz  
eta dibertimenduz beteriko as-  
teburuaz gozatzeko.

Abentura Usurbe menditik  
monozikloan egindako jaitsie-  
ra zirraragarriarekin hasi zen.  
Mendi honek 753 metroko  
altuera du, eta ingurutako  
ikuspegi ikusgarriak eskain-  
tzen ditu. Monoziklistak bidean  
sartu ziren, arroak eta sus-  
traiak saihestuz, eta mendi-he-  
galetan zitzu bizian ibiltzearen  
zirraraz gozatu zuten. Batzuek  
jaitsiera apur bat beldurgarria  
aurkitu zuten hasieran, baina  
denek lortu zuten arrakastaz  
osatzea. Beasain eta Ordizia  
zeharkatuz itzuli ziren herrira.

Jaitsieraren ondoren, indar-  
berritzeko, taldeak paella baz-  
kari gozoaz gozatu zuten. Ike-  
rrek herriko elkartearen bereziki  
beraierentzat prestatu zuten.

Bazkariaren ondoren, saski-  
baloi erakustaldia antolatzen  
zuten monozikloan, bertaratutako



guztiak harrিতuta utziz. Mono-  
ziklistek baloia erabiltzen eraku-  
tsi zuten, gurpil bakar baten  
gainean pedalei eragiten zieten  
bitartean. Ikusleek kirolariak  
txalotu eta animatu zituzten,  
haien trebetasunak txunditu-  
ta. Bestelako akrobaziak ere  
erakusten aritu ziren egurrezko  
paletak, lokotx biltzea, sokati-  
ra, slack line eta akroyoga.

Igandean, taldea monozi-  
kloan Urkia auzora abiatu zen  
mendi irteera zirraragarri bat  
egiteko. Bidea paisaia ber-  
dean zehar zabaltzen zen, eta  
taldeak ikuspegi ezberdinak  
miretsi ahal izan zituen. Ha-

maiketako eder baten ondoren,  
jaitsieraren unea iritsi zen, eta  
monoziklistak maldan behera  
abiatu ziren zitzu bizian, adre-  
nalinaz eta jaitsieraren zirraraz  
gozatu.

Laburbilduz, Itsasondoko  
asteburua esperientzia pa-  
regabea izan zen, abenturaz,  
emozioz eta adiskidetasunez  
betea. Monoziklistak oroitza-  
pen ahaztezinekin joan ziren  
etxera, eta eskerrak eman  
zizkieten hainbesteko berota-  
sunez hartu zituen herriko ko-  
munitateari. Zalantzarik gabe,  
inoiz ahaztuko ez duten aste-  
burua.

## EH Bilduk seigarren zinegotzia lortu du

Maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetan, EH Bildu bost zinegotzi izatetik seira pasa da, 209 bozkarekin, eta EAJ-PNV bi zinegotzi izatetik bakarra izatera, 50 bozkarekin.



**B**atzuek pentsatuko duzue Itsasondoko Udalean bost zinegotzi izateak edo sei izateak ez duela axola, azken finean, EH Bilduk gehiengo askoagatik duela eta. Baina errealitatea ez da hori: lanerako zinegotzi bat gehiago irabazi dugu. Eta lanerako diogu, EAJ-PNVk ateratzen dituenak ez baitira herrira hurbildu ere egiten, nahiz eta hauteskunde-kanpainako elkarrizketetan, EAJko zerrendaburuak herria oso ondo ezagutzen duela esan. Oso desberdina da udal-taldean lanerako sei pertsona kargudun izatea edo bost izatea, karguarekin batera doazen lanak eta ardurak banatzeko bat gehiago izatea. Horregatik jarri genion geure buruari seigarren zinegotzia lortzearen helburua, eta horixe izan da, hain zuzen ere, lortu duguna.

Udalaren kargu-banaketan aldaketa hori gertatzeko arrazoiak ugariak izan badira ere, bada oso esanguratsua den bat: abstentzioaren ia 9 puntuko igoerak zuzen-zuzenean EAJ-PNVri egin dio kalte. Hau da, abstentzioaren gorakada EAJ-PNVren bozken galaren kopuru berean eman da, Itsasondon EAJ-PNVk duela 4 urte baino bozken % 9 gutxiago atera baititu eta EH Bilduk, aldiz, % 6 gehiago. EH Bildu bozken % 75era iritsi da, EAJ-PNV, berriz, % 18ra jaitsi da.

Zer egon daiteke orduan abstentzio horren atzean? Lehenik eta behin, esan behar da joera orokorra izan dela Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gipuzkoan, baina egia da Itsasondoko abstentzioaren igoera nabarmena izan dela: ohiko bozkatzaile batzuk etxean geratu dira. Eta ez soilik udaleko

osaera bozkatzerakoan, baita Gipuzkoako Batzar Nagusietera bozkatzerakoan ere, % 7ko galera izan baitute, EH Bilduk % 5 igo duen bitartean.

Bozken azterketa egite-rakoan hori ere bada puntu esanguratsu bat: EH Bilduk udalerako Batzar Nagusieterako baino 26 bozka gehiago jaso ditu. Bozka horiek bereziki EAJ-PNV eta Podemos bozkatu dutenengandik etorri dira. Hau da, nahiz eta Gipuzkoa gobernatzeko EH Bildu ez hautatu, zenbaitzuk nahiago izan dute udalean EH Bildu bozkatu.

Beraz, nahiz eta joera orokor baten barruan izan, Itsasondon nabarmen geratu da herritarrek EH Bilduren jarduna txalotu nahi izan dutela, bereziki, udalean eta udaletik eginiko jarduna. Beraz, alde batetik, ustez ondo egin ditugunak eta, bestetik, aurrean ditugun erronkak





zuzen identifikatzea dagokigu, lehenengoetan sakondu eta bigarreni modu egokian helitzeko.

Gure ustez, asmatu dugu udalaren jarduna bereziki udal-batzorde eta lantaldeen baitan dinamizatzen, hiru batzorde handiez gain (Ongizatea, Herri Bizitza eta Lurralde Antolaketa), gainerako lan taldeek (Gazteria, Kultura, Hezkuntza...), erabaki potoloak herritarrekin batera hartzeko aukera eskaintzen baitigu, askotan lana eta ardurak banatzeko bideak biderkatuz. Udaletxea txikia ez ezik, baliabide ekonomiko txikia duguna da eta, beraz, boluntario moduan egiten dugun lana (nola zinegotziek, hala herritarrek), galdu ezin dugun altxorra da. Zentzu horretan, batzorde zein lan taldeetan parte hartzen duzuen norbanakoei eta herriko talde

antolatu guztiei (jubilatuek, eskolako irakasleak, elkarteko kideak, guraso elkartekoak, kirol-txirrindularitza taldekoak, Karreapeko gazteak... eskerrik zintzoena eman nahi dizuegu, urtez urte teknikariek eta zinegotzietan batera eskuz esku aritzen zaretelako lanean, zuek ere, zuen denbora eta indarra musu-truk eskainiz.

Eta erronkei dagokienean, bereziki abstentzioak adierazten duenari heldu beharko diogu. Itsasondon argi dago abstentzioaren zati bat tentsioezan dagoela: zaila izaten da gauza asko emanak ditugunean, beste modu batera izan zitekeela pentsatzea. Adibidez, zenbatek pentsatzen dugu udalean EH Bildu egongo ez balitz, ziurrenera herriandendarik ez genukeela izango? Taberna bakarra izango genukeela? Ludotekarik ez zela

izango? Herritarrok kudeatutako energia-komunitaterik ez genukeela izango? Ez eta festa herrikoirik ere? Zer litzateke biztanle eta diru gutxi duen herri bat udaletik eta udalean lan egiten duten pertsona horien guztien indarrak gabe?

Hori abstentzioaren zati bat bada ere, benetako erronka Itsasondon bizi garenon ongizatea da: baliabide materialetan zein subjektiboetan. Eta azken horiek markatuko dute diferentzia: herritarren parte-hartzea, herritarrek herriarekiko eta bizilagunekiko duten atxikimendua, herriaren parte senti gaitetzen bultzatzea. Azken finean, ambulatorioari eutsiko dion Itsasondo osasuntsu bat eraikitzeko, elkar zainduko duen herria izaten jarraitzeko, maite dugun Itsasondo osatzeko, guztiok parte hartzea ezinbestekoa izango baita.

# Harrera eguna

.....  
Itsasondo herri txikia izan arren, harrera-herria dela ere badakigu. 2016. urtean egin genuen Harrera Eguna lehen aldiz Itsasondon.  
.....



**G**eroztik, urtero, herrira bizitzera etortzen diren herritar berriek eta herriko eragile ezberdinetako ordezkariak parte hartzen duten ongietorria egiten dugu. Udaleko Ongizate lan taldetik sortu eta antolatutako topaketa da, eta herritarrei ongietorria eman, gure herria aurkeztu eta elkar ezagutzera dituzte helburu. Ekintza xumea den arren, gure komunitatean garrantzi eta balio handia du, herri abegitsu eta lagunkoia izateko xedez.

2022-2023 urteen artean jatorri anitzeko 52 herritar berri errolatu dira, besteak beste, Espainiar estatua, Nikaragua, Andaluzia, Errumania, Ukraina, Nigeria, Maroko, Honduras, Kolonbia, Pakistan, Peru eta Euskal Herritik etorritakoak.

2023ko Harrera Eguna ekainaren 14ean ospatu genuen, eta topaketan 30 pertsonak hartu genuen parte (20 helduk eta 10 haurrek). Herritar berriei udaletxe aurrean egin zitzaizkien harrera. Aurkezpen dinamika egin ondoren, topaketa borobiltzeko, Bizi Nahi jutilatu

etxean amaitu genuen, mahai inguruan.

Itsasondon dauden zerbitzu eta baliabideen inguruko informazioa emateaz gain, elkar ezagutzeko ekintza aproposa da, eta bide batez Itsasondoko herritarren antolatze modua, ohiturak, jaiak eta ekintzak jasotzen dituen gida bat eman zitzaizkien herritar berriei.

**GURETZAT PLAZERA IZAN DA ZUEI ONGIETORRIA EMATEA, GURE HERRIKO ATEAK ETA BESOAK IREKITZEA! ONGI ETORRI GUZTIEI!**



## HITZALDIA (otsailak 2)

"Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeek sexualitate aske eta osasuntsu bat izateko?" Gaztematikako "Treba Gurasoak" formazioaren barruan Itsasondon egindako hitzaldia. Guraso taldea bildu zen, eta oso saioa praktikoa egiteko aukera izan zen. Hizlaria, Eider Goiburu sexologia izan genuen.



## ZUHAITZ EGUNA (otsailak 18)

Aurtengoan ere tresnak eskuan hartuta 100 zuhaixka inguru landatu dira. Familia ugari parte hartu zuen eta ondoren hamaiketako egin zen plazan. Lanean igarotako goizak, merezi zuen eta!



## TXOTXONGILOAK- Alaitz Galtzagorria (otsaila 24)

Aspaldi ez genuen herrian txotxongiloez gozatze-ko aukerarik izan, eta Alaitz galtzagorriak mitologiara hurbildu gintuen. Haurrek primeran pasa zuten. Amaieran txotxongiloak ukitu eta frogatzeko aukera izan zuten.



## MUS TXAPELKETA (otsailak 26)

Ohikoa den moduan aurtengoan ere Itsasondon izan dugu muserako zita. EH Mus Txapelketaren kanporaketa izan genuen. Bikote askok parte hartu ez arren giroa paregabea izan zen.



## EMAKUME BAZKARIA (martxoak 8)

Aurten ere hainbat adin tarteko emakumeak elkartu ziren emakume langilearen eguna elkarrekin ospatzeko. Arbelaitz elkartean aparteko menua dastatu zuten.



## PANTXIKA LAMUR (martxoak 8)

Emakume eguneko bazkaria girotzeko, Pantxika izan genuen gurean. Ez zuen gairik ukitu gabe utzi, eta emakume gazte zein heldu algarra batean izan zituen.



## OIHALEZKO KONPRESAK (martxoak 10)

Berrerrabilpena oinarri hartuta, Saioa Urzelairen eskutik oihalezko konpresen tailerra izan genuen. Lehenik, hilerokoaren inguruko solasaldia egin zuten bertaratuek eta gerora ekin zioten hainbat materialarekin konpresak egiteari.





### HARRO ADI EKITALDIA (martxoak 11)

Txikia-ren hilketaren 50. urtemuga dela eta, Harro Adi ekimen nazionala martxan izan da hilabete hauetan. Itsasondon, bere jaioterrian, ere izan dugu ekimen ugari. Hunkigarriena herrian egindako ekitaldia izan zen.



### ELBIRA DOKUMENTALA (martxoak 17)

Irakaslea, emakumea eta euskaltzale amorratua. Elbiraren bizitza jasotzen duen dokumentala tentuz ikusi genuen bertaratukoek.



### MENDI IRTEERA (martxoak 18)

Guraso elkarteak antolatutako mendi irteera ere burutu zen martxoan. Ibilbide ezberdinak egiteko aukera izan zen, eta ondoren plan jolas herrikoiak egin zituzten.



### HARRO ADI HITZALDIA (martxoak 22)

Mikel Aramendirekin hitzaldia izan genuen: "1960 hamarkada: haziaren ereintzako urteak". Hamarkada horretako zehaztapen ugari eman zen hitzaldian: egungo testuingurua kokatzen laguntzeko beharrezkoa baita iragana ezagutzea.



### ZINE KLUBA

#### (martxoak 28, apirilak 25, maiatzak 30)

Hainbat film eskaintzeari ekin diogu azken hilabeteetan. Ninja Baby, Arazo pertsonalak eta Casablanca beats izan dira ikusiko pelikulak.



### LITERATUR TERTULIA (apirilak 19)

Estitxu Irisarrik gidaturiko saioa izan genuen. Agurtzane Anduezarekin batera idatzitako Oinarrizko hiztegi poetiko bifokala liburuaren aurkezpena egiteko aitzakiarekin, sortze lanean jarri zituen bertaratutak.

## KIROL ASTEA

### TXIRRINDU GINKANA (apirilak 24)

Haurren gozamerako ginkana egin zen kirol asteko ekintza modura. Haur askok parte hartu zuten. Goierriko txirrindulari elkarteak antolatu zuen ekintza.



### KIROL EGOKITU SAIOA (apirilak 28)

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko lagunek gidaturiko saioa izan zuten 5. eta 6. mailako ikasleek. Hainbat mugekin kirola egitea ere posible dela ohartzeko dinamika ugari egin zituzten.



### ERRETIROA ETA MENDIA.

#### Goierriko mendizale beteteranoak (apirilak 28)

"Mendizaletasuna eta erretiroa ez dira antoni-moak", horrelaxe adierazi ziguten Goierriko mendizale beteteranoek. Lehenik, azkenaldian egindako ibilbideen bideoa ikusi genuen eta ondoren solasaldia izan zen.



### "EL CHE" ERAKUSKETA ETA SOLASALDIA

#### Manu Carrascorekin (maiatzak 8)

Inork gutxi ezagutuko du hain sakonean Ernesto Che Guevararen bizia. Manu Carrascok dituen ehundaka irudietatik sailkapena ekarri zuen Itsasondora erakusgai jartzeko. Solasaldia ere eskaini zuen erakusketa hasieran, eta bertaratuek gozo hartu zituzten bere azalpenak.



### URKIKO JAIK (maiatzak 3,6,7)

Aurtengoan ere gogotsu hartu ditugu Urkiko jaiak. Ohiko egitarau eta giro aparta lagun izan ditugu.



### MONOZIKLO TOPAKETAK (maiatzak 6,7)

Atal berezian eman dugu topaketaren berri.





### **KALE GORRIAN kale antzerkia (maiatzak 19)**

Etxe desjabetzea gaitzat hartuta hankaz gora jarri dute Itsasondo. Jende ugari bildu da herriko plazan eta polizia ere bertaratu zenez tentsio uneak bizi izan ziren, umore eta antzerki testuinguruan noski!

### **HERRI EGUNA (ekainak 3)**

Herriko gazteak herri eguna berreskuratzeko asmoz, egitarau oparoa antolatu dute. Jolasak, bingoa, afaria, kontzertuak eta noski parranda ez dira falta izan.

### **BERTSO SAIOA (ekainak 9)**

Punta-puntako lau bertsolari izan ditugu gurean. Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi, Aitor Mendiluze eta Saioa Alkaiza izan ditugu kantuan, Amaia Agirre gai jartzaile zutela.

### **GARAGARDO AZOKA (ekainak 16-17)**

Arbelaitz elkarteak ere aurten hartu du Garagardo Azoka antolatzeko konpromisoa. Giro ezin hobea izan omen da ordu txikiak arte; plaza oinetakoez beterik egon zen jabeak oinutsik dantzan zebiltzan bitartean.

### **TXARAINAK KONTZERTUA (ekainak 16)**

Garagardoa eta musika ona beti joan dira eskutik. Aurtengoan ere Garagardo Azoka girotzeko, musika kontzertua izan dugu. Txarainak taldea izan dugu, Ertzainak taldearen bertsioak joz.

### **MUSIKA ESKOLAKO EMANALDIA (ekainak 19)**

Urtean zehar ikasitakoa herriari eskaini diote herriko musikari gazteek. Artista batzuk eginak daude! Bejondeizuela!

### **SAN JUAN SUA (ekainak 23)**

Urteko gaurik magikoena, sardina eta sagardo artean pasa dugu, suaren inguruan dantzan! Giro aparta izan da, herritarren gozameneko.

**El tablero de la reina**  
Luis Zueco



**Nosotros**  
Manuel Vilas



**Animalia domestikoak**  
Esti Martínez



**La desconocida**  
Rosa Montero,  
Olivier Truc




**Zomorrotu**  
Aintzane  
Usandizaga

**Lurrean haziak**  
Asel Luzarraga



**Como (no) escribi nuestra historia**  
Elisabet Benavent



**Pantailen garaipena**  
Iñigo Martínez




**Printzak begietan**  
Iratxe Ormatza



**En la boca del lobo**  
Elvira Lindo

liburu gomendioa



**LA BATALLA DE AMAIUR  
LA HISTORIA PERDIDA  
DE NAVARRA**  
Iñaki Sagredo

Zein da Amaiurko gazteluaren jatorria? Zer paper jokatu zuen Nafarroaren konkistan? Nola prestatu zen borroka? Iñaki Sagredok protagonistei eta haien estrategiei buruzko datu erezagun ugari biltzen ditu, eta bataila deskribatzen du, urratsez urrats, eskema eta birsortze birtualekin. Duela 500 urte kokatzen gaitu, gudua zati hori inoiz erakutsi ez zen bezala, Nafarroari leial izan zirenek bizi izan zuten gisan. Gertaera haietatik bostehun urtera ibilbide batzuk ere jasotzen ditu. Sagredok zehatz-mehatz berreskuratzen ditu bataila inguratu zuten eszenatokiak eta kanoiak garraiatzeko, tropak mugitzeko edo espioiek erabili zituzten ibilbideak. Xarmaz eta kondairaz beteriko paisaiak. Lehen mailako iturrien ikerketa zorrotz batean oinarritua, gertatutakoa bizi izan zutenekin egin zuten bezala kontatzeko. Inor axolagabe utziko ez duen liburua.

Errezeta

**Txerrikume-tarrina tenperatura baxuan eztiarekin eta erromeroarekin**



**4 pertsonarentzat:**

- Txerrikumearen 1/4
- 60 gramo ezti
- 2 erromero-adar
- Gatza
- Tipula 1
- 300 gramo onddo

Txerrikumea bost orduz laberatu, 165 gradutan. Bestetik, kazola batean erromero adar bat, tipula eta onddoak sueztituko ditugu.

Erreta daukagunean, hezurra kenduko diogu txerrikume guztiari eta zati handitan utziko dugu. Eta egosketa horren zukuak aprobetxatuko ditugu.

Azala ahalik eta gehien kenduko diogu, tapakiz erabiltzeko.

Kazolan txerrikume guztia jarriko dugu, hau da, haragi guztia, eta ezta eta ardo zuri kopa bat gehituko dizkiogu. 30 minutuz egosten utziko dugu, gelatina guztiak batzeko eta uniforme geratzeko.

Nahastuta dagoela molde batean jarriko dugu, larruak gainean, eta 24 orduz utziko dugu.

Nahi dugun goarnizioarekin zerbitzatzerakoan, 10 minutuz 180 gradutan laberatuko dugu.

On egin!

# agenda

## ABUZTUA

15: Ama Birjinaren eguneko bazkaria.

## IRAILA

4: Ongizate batzordea, 17:30ean, udaletxeko bilera gelan.

6, 13, 20, 27: Adinekoentzako estimulazio tailerra, 16:30ean Bizi-nahi elkartearen.

6: Jai batzordea, 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.

14, 16 eta 17an: Urkiko jaiak.

21, 22, 23 eta 24: Herriko jaiak (egitaraua etxeetara banatuko da).

25-28: Aste klima.

29: Pintxo potea.

## URRIA

2: Ongizate batzordea, 17.30ean, udaletxeko bilera gelan.

4,11,18,25: Adinekoentzako estimulazio tailerra, 16:30ean Bizi-nahi elkartearen.

4: "Mateo misteriotsua" nobela erotikoaren aurkezpena, Betzaida Urtaza. 19:00etan Liburutegian.

6, 13 eta 20: Pintxo potea.

20: Matraka tailerra eta kale animazioa, 19:00etan, plazan.

11: Herri bizitza batzordea.

19:00etan Udaletxeko bilera gelan.

19: Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia "Katuen Kantua", eskolako haurrentzat emanaldia. 11:00etan.

28 eta 29: Urkiko asteburu mikologikoa.

31: Gau beltza.

## AZAROA

6: Ongizate batzordea, 17:30ean, udaletxeko bilera gelan.

8, 15, 22, 29: Adinekoentzako estimulazio tailerra, 16:30ean Bizi-nahi elkartearen.

8,15,22,29: Adinekoentzako estimulazio tailerra, 16:30ean Bizi-nahi elkartearen.

8: Herri bizitza batzordea. 19:00etan, udaletxeko bilera gelan.

8: Ipuin kontaketa, 17:30ean, liburutegian.

18: Gaztaina jatea.

Kantu afaria: Data zehazteko.

25: Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna.

30: Greba Feminista.

## ABENDUA

2: Talo eguna.

4: Ongizate batzordea, 17:30etan, Udaletxeko bilera gelan.

15: Metropolis filma eskolako arkupean.

24: Olentzero eta Mari domingi.

\*\*\* Eskola aldaketa dela eta, Kulturgunea ezingo da erabili. Hortaz, zenbait ekintza zehaztu gabe daude. Espazioaren berrantolaketaren arabera zehaztuko dira.

## telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	
Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz elkartea	943 881339
Itsaskoop janari denda	722 366 173
Arrastoa Botika	943 882148
Medikua	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna	943 880012
Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285
Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	678 035788

Ale honetan parte hartu dutenak:

Ainhoa Barandiaran  
Danel Etxeberria  
Eneritz Maiz  
Erkuden Mendizabal  
Gaztelekuko gazteak  
Iñaki Aizpuru  
Iturritxiki guraso elkartea  
Haur eskola  
Hitzar komunitatea  
Jone Etxeberria  
Jone Iturrioz  
Maite Lasa  
Nagore Etxeberria  
Nerea Manzidor  
Ongizate lantaldea  
Urkipe eskola  
Urkipe eskolako haurrak

Itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:  
943 88 11 70  
[itsasondo2.0@itsasondo.eus](mailto:itsasondo2.0@itsasondo.eus)

Lege gordailua:  
SS-297-2010

ISSN:  
2171-5572

**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
HURRENGO ALEA AZAROAN  
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.**



**UDALERRI  
EUSKALDUNEN  
MANKOMUNITATEA**